



ANDOAINGO UDALA



Andoingo Kale-garbiketa zerbitzu osoa publikoa izango da urtarrilaren 1etik aurrera

25019ko urtarrilaren 1etik aurrera kale-garbiketa zerbitzua Udalak kudeatuko du bere osotasunean. Duela hamar urte baino gehiago dira Udalak zerbitzu hau eredu mixtoan eskaintzen duela: herriaren zatirik handiena kale-garbiketa lan-taldearen bitartez eta Zumeatik Sorabillarainoko tartea, berriz, kanpoko enpresa baten bitartez.

Udal gobernuarentzat lehentasunezkoa izan da kale-garbiketa zerbitzuaren publikazioa. Pasa den agiuntaldian ere egin zuen horretarako proposamena, baina orduko hartan ez zuen gainerako alderdien babesik jaso. Oraingo honetan, ordea, gehiago zabal batekin onartu da.

Zerbitzu honen publikazioarekin hiru helburu lortuko dira:

-Zerbitzu hobea eskaintzea: Udalak barredora berria eskuratu du (honekin, beraz, bi izango ditu) eta langileen ibilbide guztiak berraztertu dira. Aurrerantzean bi barredorek modu koordinatuan egingo dute lan, bata eta bestearen arteko zonaldeak berrezarri direlarik. Horretaz gain, igande eta jai egunetako garbiketa orduak ere handitu egingo dira.

- **Lanpostu publikoak finkatzea:** Publikazio prozesu honetan bi lanpostu berri sortu dira. Hasiera batean iaz osatu zen kale-garbitzaileen lan-poltsatik kubrituko dira. Neurri honekin, kalitatezko enplegu publikoaren alde egiten jarraitzen dugu.
- **Dirua aurrezte:** Egin ditugun kalkuluen arabera, urtero 68.000 € inguru aurreztuko ditu udalak.

Esan bezala, neurri hau urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta espero dugu emaitza onak ematea. Nolanahi ere, gogorarazi nahi dugu herria garbi mantentzeko lehen neurria norberarengandik hasten dela: gutxiago zikinduz eta kaleko zaborrontziak gehiago erabiliz asko hobetu dezakegu herriko garbitasuna guztion artean.

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko kale garbiketako langileei, prozesu honetan azladu duten borondate eta prestutasunagatik.

Andoain, 2018ko abenduaren 19an

